



NEGUA HELDU DA

LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz**

ABESLARIA: **Urko Oskoz**

NEGUA HELDU DA IA
HONA GURE ETXE ALDERA
DENA TXURI DAGO BAINA
GOAZEN DENOK JOLASTERA

JANTZI ESKULARRUAK
TAPAUKA ETA TXANOA
KANPOAN HOTZ DAGO BAINA
IRRIFARRA DUGU AHOAN

ZUHAITZAK EZKUTATZEN ARI DIRA
HAINBAT ANIMALIA LOTAN
TXORIAK PATIOAN JANARI BILA
SUA PIZTEKO GARAIA HELDU DA

EGUN MOTZAK
GAU LUZE XAMARRAK
LAGUNEKIN ONGI
PASATZEKO AUKERA
ELUR MALUTAK ESKUTAN HARTUTA
GOAZEN PANPINA BAT EGITERA

EGUN MOTZAK
GAU LUZE XAMARRAK
LAGUNEKIN ONGI
PASATZEKO AUKERA
ELUR MALUTAK ESKUTAN HARTUTA
GOAZEN PANPINA BAT EGITERA